

LE1. INGURUMENA KALTETU GABE, TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO GARAPEN EKONOMIKOA BULTZATU

LE2. BIZTANLERIAREN ONGIZATEA ETA BIZI KALITATEAREN HOBEKUNTZA SOLIDARIOA SUSTATU

LE3. HIRI INGURUNEAREN ETA INGURUMEN ZERBITZUEN HOBEKUNTZA

LE4. BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA BABESTU ETA UDALERRIKO GUNE ETA ELEMENTU ESANGURATSUAK EZAGUTARAZI

LE5. HERRIKO MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASE

LE6. HERRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA ETA HERRITARREN SENTIKORTZE ETA PARTEHARTZEA HOBETU

LE7. UDAL KUDEAKETA HOBETU IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK TXERTATUZ

LE1. INGURUMENA KALTETU GABE, TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO GARAPEN EKONOMIKOA BULTZATU**P.1.1. Dibertsifikazioa bilatuz, enpresa ekimen berriak babestu eta sustatzeko programa**

E.1.1.1. Enpresa ekimen berriak sortzeko eta daudenak mantentzeko laguntza eskaini Tolosaldea Garatzen Agentziako zerbitzuen bidez. (*Tolosaldea Garatzen*)

P.1.2. Lehen sektorearen sustapen ekonomikorako eta babeserako programa

E.1.2.1. Baserriko produktuen salmenta herrian zabaltzeko mekanismoak martxan jarri.

E.1.2.2. Hausnartu eta definitu arauen berrikuspenean landa eremura zuzendutako lurzorua zenbatekoa eta non izan behar duen, horrela nolabaiteko babes figuraren bat eman ahal izateko.

E.1.2.3. AHTaren eraginak nekazaritza sektoreko aktibitateetan etenik ez sortzeko zein neurri hartu daitezkeen aztertu.

E.1.2.4. Baso kudeaketa jasangarria bultzatu, etekin ekonomikoa, ingurune naturalaren kontserbazioa eta gizartearen aprobetxamenduaren arteko oreka bilatzeko helburuarekin.

- a) Udal jabegoko landa eremuaren antolaketa eta kudeaketa iraunkorrerako plan bat sustatu.
- b) Foru Aldundia zein jabego pribatuko lurzoruetan baso kudeaketa iraunkorreko irizpideak barneratzea bultzatu.

E.1.2.5. Labeldun produktuak/ produktu ekologikoak/ kalitatearekin loturiko ziurtagaridun produktuen ekoizpena bultzatzen jarraitu. (*Tolomendi*)

E.1.2.6. Nekazal lurren inguruan egoera txarrean aurkitzen diren hesiak konpontzeko heskaien (setos vivos) ezarpena sustatu, esaterako autobidearen alboko Aldundiaren ardurapean eta egoera kaxkarrean aurkitzen diren hesietan. (*Foru Aldundia*)

E.1.2.7. Gazteak nekazaritza munduan sartzeko aukerak aztertu Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapen Elkartearekin elkarlanean.

E.1.2.8. Abeltzaintza intentsiboa ez den nekazaritza ekologikoa sustatu (*Tolomendi*)

E.1.2.9. Ingurumen jardunbide egokiak nekazal sektorean sustatu (*Tolomendi*)

P.1.3. Merkataritza sektorea indarberritzeko programa

E.1.3.1. Tokiko merkataritza mantendu eta indartuko duten politikak martxan jarri. (*Tolosaldea Garatzen*)

E.1.3.2. Informazio kanpainen bidez tokiko kontsumo iraunkorra sustatu herritarren artean (esaterako, kanpora joateak suposatzen duen guztizko gastu handiagoa mugikortasuna kontutan izanez gero, etab.). *(Tolosaldea Garatzen)*

P.1.4. Turismo garapen eta sustapenerako programa

E.1.4.1. Turismoaren sustapenerako ekintzen garapena Eskualdeko udalerriekin elkarlanean:

- a) Anoetako turismo baloreak identifikatu ondoren ezagutzera emateko.

E.1.4.2. Tolosaldea mailan eginiko Turismo Plana iraunkortasun irizpideak txertatuz garatu *(Tolosaldea Garatzen)*

P.1.5. Pertsona guztien lan-bideratze eta aukera berdintasunerako programa

E.1.5.1. Tokian tokiko enpresetako kontratazioetan kontratatuak herriko jendea izan dadin prestakuntza egokiena izatea sustatu.

E.1.5.2. Udal kontratazioetako baldintzetan kalitatezko enplegurako irizpideak barneratu eta herriko langabetuak kontratatu, betiere, pribatizazio ekiditen saiatuz.

E.1.5.3. Garapen Agentziako zerbitzuetako ekintzen inguruko informazioa zabaldu (prestakuntza ikastaroak, enpleguarekin erlazionatutako zerbitzuak eta bere funtzioak, beste inizatibak...) langabezian dauden sektoreetara bideratuak. *(Tolosaldea Garatzen)*

LE2. BIZTANLERIAREN ONGIZATEA ETA BIZI KALITATEAREN HOBEKUNTZA SOLIDARIOA SUSTATU**P.2.1. Biztanleriaren beharrak aseko dituen etxebizitza politika iraunkorra garatzeko programa**

E.2.1.1. Herritarrek etorkizunera begira zenbat eta nola hazi behar duen hausnartzeko/eztabaidatzeko eta etxebizitzaren itxura eta urbanizazioa modu egokiak finkatzeko bilera irekiak antolatu (ASS berrikuspenera begira).

E.2.1.2. Etxebizitza berrien sustapena burutu, herrikoei lehentasuna ematen, familia eredu berriak kontutan edukiz, gazteentzako etxebizitza bermatuz eta Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta/edo prezio tasatuko etxebizitzak eraikitzea baimenduko dituzten neurriak aurrera eramaten.

- a) Prezio tasatutako etxebizitzak eraikitzea herriaren ikuspuntutik onuragarriak diren aztertu.

E.2.1.3. Hutsik dauden etxebizitzak alokairu merkatura bideratuak izan daitezen sustapenak egin.

- a) Egun hutsik eta epe labur batera hustuko diren etxebizitza kopurua eta egoera ezagutu.

E.2.1.4. Etxebizitzak birgaitzeko eta erosotasuna handitzeko programen sustapenak burutu, igogailuak ezartzeko erraztasunak emanez esaterako.

E.2.1.5. Baserrien inguruan sortu daitezkeen espekulazioei irtenbide bat bilatu

P.2.2. Hezkuntza zerbitzuak sortu eta garatzeko programa

E.2.2.1. Herriko derrigorrezko hezkuntzan sortzen diren beharrei erantzuna ematen jarraitu.

E.2.2.2. Hezkuntza zerbitzuaren barruan, Ikastolak antolatzen dituen eskolaz kanpoko hezkuntza proiektuak mantendu eta anoetarren eskaria asetzen duten aztertu, beti ere hobetzeko helburuarekin.

E.2.2.3. Ikastolak aurrera daraman proiektua lagundu ekonomikoki, hezkuntza kalitatea mantenduz eta, ahal den neurrian, kalitate hori handituz.

E.2.2.4. Ikastolako toki faltaren arazoa konpontzeko neurriak aztertu.

E.2.2.5. Loatzo Musika Eskolak herrian klaseak emateko duen azpiegitura hobetu esaterako, aurreikusitako etxebizitza berrien beheko solairuan gelak ipintzeko aukerak aztertuz.

E.2.2.6. Helduentzako hezkuntza iraunkorra lantzeko orduan kanpotik datorren jendea kontutan eduki.

E.2.2.7. Herriko hezkuntza zentroetan Eskolako Agenda 21 bultzatu. (*Udaltalde mailan*)

P.2.3. Udalerriko osasun eta gizarte zerbitzuen baldintzak egokitzeko eta garatzeko programa

E.2.3.1. Anoetako pediatria zerbitzua arinagoa izatea bultzatu.

E.2.3.2. Anoetako osasun zentroko errekurtsok herriko benetako beharrei egokitzen diren aztertu.

E.2.3.3. Ongizateari zuzendutako errekurtsok handitu eta hobetu ahal diren heinean, adibidez gizarte zerbitzuak eskaintzeko azpiegiturak hobetuz, zerbitzuen inguruko informazioa zabalduz, etab.

E.2.3.4. Adindu, elbarritu eta etxean menpeko pertsonak dituztenengana zuzenduriko gizarte zerbitzuen laguntza mantendu eta, ahal den neurrian, sendotu.

E.2.3.5. Baserrietan nahiz etxebizitzetan bakarrik bizi diren pertsonen egoera ezagutu.

E.2.3.6 Ernioebehea mailan Drogomenpekotasuneko Prebentzio Plan bat burutu (*UT21 Ernioaldea / Tolosaldea Garatzen*)

E.2.3.7. Gizarte zerbitzuen alorrean, herritarrek egun dituzten eta etorkizunean izango dituzten beharren azterketa bat burutu zerbitzuen inguruan aurreikuspen bat burutu ahal izateko (*UT21 Ernioaldea*)

P.2.4. Aisia, kultura eta kirol zerbitzuak eskaintzeko programa

E.2.4.1. Herrian antolatzen diren kultur jarduera ezberdinen parte hartzea hobetu eta handitu, herritarren inizatibak sustatuz.

E.2.4.2. Kultur taldeentzako dirulaguntzen programak mantendu eta hobetu.

E.2.4.3. Ludoteka bat ireki ahal izateko aukeren analisia egin.

E.2.4.4. Gaztetxoko bat ireki ahal izateko aukeren analisia egin

E.2.4.5. Liburutegira zuzendutako azpiegiturak handitu, liburutegia benetako beharrei egokitzeko eta programatzen dituen jarduerak izaera berritzaileago bat izan dezaten (ikus-entzunezkoak, ordenagailuak...).

E.2.4.6. Kultura eta aisia sustatzeko zuzendutako azpiegiturak garatu.

E.2.4.7. Kultur sormena lantzeko erraztasunak eman, baliabideak eta espazioak eskainiz.

E.2.4.8. Herritarren kultur jardueren lehentasunak jakinda, hauek aurrera eramateko posibilitateak aztertu eta garatu, gazteei zuzendutako ekintzei arreta berezia jarritz.

E.2.4.9. Herriko musika taldeei zuzendutako azpiegiturak egokitu.

E.2.4.10. Dagoen kirol eskaintza mantendu eta zabaldu ahal izateko ze aukera dauden aztertu.

E.2.4.11. Frontoiaren erabilera optimizatu.

E.2.4.12. Eskualdeko kirol beharrak Tolosaldea mailan koordinatu (aire zabaleko igerileku parkeduna ...) (*UT21 Ernioaldea*)

E.2.4.13. Eskualde mailako kirol jarduerak antolatzeko eskualdeko gainontzeko udalerriekin koordinazioan jarraitu eta hobetu. Tolosaldea mailan egingo den azterketa kontutan izanik, nesken kirol praktika sendotzeko neurriak hartu. (*UT21 Ernioaldea*)

E.2.4.14. Kultur programazio eta difusioaren koordinazioa bultzatu (*UT21 Ernioaldea*)

P.2.5. Herrian etorkinen integrazioa eta elkarbizitza sustatzeko programa

E.2.5.1. Haurrik ez duten inmigranteen integrazioa eskualdeko bizitzan sustatu, Anoeta lotarako herri bilakatzea saihestuz.

E.2.5.2. Inmigranteen ikuspuntu eta benetako beharrak ezagutzea baimenduko duten informazio mekanismoak garatu (inkestak, parte hartze foroak).

E.2.5.3. Eskualde mailan burutzen ari den migrazio inguruko ikerketako emaitzak kontutan eduki ekintzak martxan jartzeko orduan. (*UT21 Ernioaldea*)

P.2.6. Udalerrian euskararen normalizazioa eta hizkuntzen bizikidetasuna bultzatzeko programa

E.2.6.1. Euskararen kudeaketa planetan agente politiko, tekniko eta sozialen parte hartzea bultzatu eta baliabide gehiago jartzeko aukeren analisia egin.

E.2.6.2. Eskualdeko euskal komunikabideen sustapena koordinatu eta indartzen jarraitu (*UT21 Ernioaldea*)

E.2.6.3. Euskararen ordenantza bete.

P.2.7. Emakumea eta gizonaren arteko parekidetasuna bultzatuko duten politikak sustatu

E.2.7.1. Eskualdeko udalerrietan, Tolosaldea Garatzenekin koordinatuz, parekidetasun teknikari partekatu baten beharra hausnartu ondorengo ekintzak garatzeko: (*UT21 Ernioaldea / Tolosaldea Garatzen*)

- a) Emakumeei zuzendutako lanbide orientazio egokia sustatu.
- b) Emakumeak lan munduan aurkitzen dituen zailtasunei aurre egiteko laguntza zerbitzuak ezarri.
- c) Emakumeak langabezia erregistratzen duten erakundeetan izena ematea animatu.
- d) Etxeko-andreen lana ondo baloratu.
- e) Herriko aktibitateetan emakumeen parte hartzea indartu.
- f) Udalean genero perspektiba zeharkako gai izatea.

LE3. HIRI INGURUNEAREN ETA INGURUMEN ZERBITZUEN HOBEKUNTZA**P.3.1. Uraren zikloaren kudeaketa hobetzeko programa**

E.3.1.1. Egungo Anoetako iturburuekin zer egin erabaki.

- a) Edateko ez diren beste jarduera batzuetan erabiltzeko bideragarritasuna bilatu, beti ere, Ibiur-eko tratatutako ura lorategietara, kale garbiketa, etab. bideratua izatea saihestuz.
- b) Ura erreketan zehar bere ibilbide naturala jarraitzen utzi eta aprobetxatu erreken ingurumen errestituzioaren alde egiteko.

E.3.1.2. Udalerriko sarean ur galerak zenbatekoak diren jakin eta minimoak izan daitezten neurriak hartu eta, era berean, uraren erabilpen optimoena egiten den aztertu, hala ez balitz, neurriak hartzeko.

E.3.1.3. E.3.1.2. Uraren Arteztarauak ur hornidurarako exijitzen dituen betekizuna bermatu. (Gipuzkoako Foru Aldundia)

- a) Hiri ingurunean.
- b) Zentralako etxeetan.

E.3.1.4. Ur zikinen kolektorea eta araztegiaren obrak egin. (Gipuzkoako Foru Aldundia)

P.3.2. Energiaren kudeaketa iraunkorra sustatzeko programa

E.3.2.1. EEERekin hitzarmena sinatu udal eraikinetako efizientzia energetikoari buruzko azterketa egiteko.

E.3.2.2. Argiteria publikoaren azterketa bat burutu eta tokian tokiko argi beharrei egokitu.

E.3.2.3. Udal eraikinetan energia berriztagarriak sortzeko sistemak instalatzea.

E.3.2.4. Anoetako goi-tentsioko kableen arazoari irtenbide bat bilatu.

P.3.3. Hondakinen ingurumen kudeaketa hobetzeko eta kontsumo arduratsua sustatzeko programa

E.3.3.1. Hondakin gutxien sortzen duten produktuen erosketak sustatzeko neurriak bultzatu

E.3.3.2. Hondakinen datu eguneratu eta konparagarriak eduki ondoren sentsibilizazio kanpainetan aurkezteko.

E.3.3.3. Lorezaintza jarduerako hondakin organikoen tratamendurako konpostaia egiten jarraitu

E.3.3.4. Anoetako udalerrian aurki daitezkeen kontrolik gabeko isurpen puntuak identifikatu eta konpondu.

E.3.3.5. Hondakinen kudeaketa sistema hobetzen jarraitu.

- E.3.3.6. Lorategietan hondakin gutxiago sortzen duten landare iraunkorrak bultzatu.
- E.3.3.7. Nekazal eremuan hondakin kopuru murriztagoa sortuko duten makinaria berriak sustatu.
- E.3.3.8. Anoetako garbiketa medioak egokienak diren hausnartu bizilagunengan sortzen diren eragozpenak (zarata batez ere) murrizteko helburuarekin.
- E.3.3.9. Tolosaldean zabor bilketa mankomunatua martxan jarri eta kudeaketa sistema hobetzen jarraitu (edukiontzien banaketa antolatu,.....)(*Tolosaldeko Mankomunitatea*)
- E.3.3.10. Eskualde mailako informazio kanpaina bat burutu, Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzu guztien berri emateko eta sektore ezberdinetan jardunbide egokiak bultzatzeko (*Tolosaldeko Mankomunitatea*)
- E.3.3.11. Enpresak informatu eta sentsibilizatzeko ahalegin berezia egin eta industriguneko hondakinak enpresa baten bidez biltzeko aukerak aztertu. (*Tolosaldeko Mankomunitatea*)
- E.3.3.12. Eskualdean bigarren Garbigunea Ireki (Tolosako San Blas) (*Tolosaldeko Mankomunitatea*)
- E.3.3.13. Konpostajearen esperientzia pilotua martxan jarri eta jarraipena egin (*Tolosaldeko Mankomunitatea*)
- E.3.3.14. Enpresetako hondakin arriskutsuen kudeaketarako Tolosaldeako Mankomunitateak Gipuzkoako Merkataritza Bazkundearekin duen hitzarmena mantendu (*Tolosaldeko Mankomunitatea*)
- E.3.3.15. Tolosaldea Garatzeni betelanetarako azpiegitura amankomuna sortzeko aukera azter dezala eskatu (*UT21 Ernioaldea / Tolosaldea Garatzen*)

P.3.4. Hiri inguruko kalitatearen hobekuntzarako programa

- E.3.4.1. Hiri altzarien mantentzea hobetu eta pixkanaka berritzen joan
- E.3.4.2. Berde guneak handitzera, sortzera eta mantenua hobetzera bideratutako ekintzak garatu
- E.3.4.3. Anoetako udalerrian zehar aurkitu daitezkeen gune arriskutsuetan pertsonen segurtasuna areagotzeko neurriak hartu
- E.3.4.4. N-1ak sortu ditzakeen aire kutsaduraren datuak ezagutu
- E.3.4.5. Udalerrian pairatzen den benetako zarata maila zenbatekoa den aztertzeko baliabideak lortu eta neurketak egin ondoren irtenbideak aurkitzeko (N-1, gaueko merkantzia trenak...)

LE4. BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA BABESTU ETA UDALERRIKO GUNE ETA ELEMENTU ESANGURATSUAK EZAGUTARAZI**P.4.1. Bioaniztasuna eta paisaia babestu, berreskuratu eta ezagutarazteko programa**

E.4.1.1. Herriko gune natural interesgarriak identifikatu eta ezagutzera emateaz gain, natur guneen babesa bermatu udal planeamendu berrian.

E.4.1.2. Oria ibaitik gertu kolektore orokorra egiten duten heinean, ingurumen errestituzio lanak burutzeko aprobetxatu, aisiarekin erlazionatutako ekintzak garatuz eta, beti ere, legeak dioena errespetatuz.

E.4.1.3. Ibaiko landaredi eta ertzetan metatzen diren hondakin ugariren arazoa saihesteko herritarren sentsibilizazioan ekintzak garatu.

E.4.1.4. Urbanizazio berriaren alboan aurkitzen den Lasarbe erreka zaindu eta Ibiur-eko urtegia martxan jartzen denean inguruko iturburuetako ura erreka honetara bideratzeko aukeren analisia egin.

E.4.1.5. *Reinutria japonica* espezie exotiko inbaditzailearen zabaltzea ekidin, batez ere, lur mugimenduak burutzen direnean neurriak hartuz.

E.4.1.6. Herrian ondo kontserbatutako zuhaitz helduen inbentario bat burutu eta hauen babesa bultzatu.

E.4.1.7. Anoetako meategien kontserbazioaren alde egin, gizakiak sortu ditzakeen eraginak saihestuz eta dagokion adituarekin elkarlanean.

E.4.1.8. Ehiza hondakinak mendian botata ez uzteko, baratzak errespetatu eta oro har ehiztarien eraginak murrizteko zein neurri hartu daitezkeen aztertu.

E.4.1.9. Oria ibaiaren ingurumen errestituzio integralaren alde egin, balore natural handiko eremu bat berreskuperatzeaz gain biztanleriarentzat elkargune eta aisiarako espazio bat bihurtuz. (UT21 Ernioaldea)

- a) Ibai ertzetako landaredia berreskuperatu (Haltzadi kantabriarra).
- b) Ubidean zehar arrainen migrazioarako aurkitu daitezkeen oztopoak ezabatu.
- c) Sedimentuen garbiketa bultzatu.
- d) Harri-lubeteen naturalizazioa sustatu.
- e) Espezie exotiko inbaditzailearen zabaltzea ekidin.

E.4.1.10. Eskualdeko gune natural interesgarriak eta bertako fauna eta landaredia identifikatu, zerrendatu eta ezagutzera eman. (Tolosaldea Garatzen)

P.4.2. Ondare historiko, etnografiko eta arkitektonikoa babesteko, berreskuratzeko eta ezagutarazteko programa

E.4.2.1. Herriko ondare historiko, etnografiko eta arkitektonikoa identifikatu, zerrendatu eta ezagutzera eman.

E.4.2.2. Aztarna arkeologikoen testigantzak ez galtzeko neurriak hartu.

LE5. HERRIKO MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASE**P.5.1. Herriko irisgarritasun baldintzak iraunkortasun irizpideak jarraituz hobetzeko programa**

E.5.1.1. Udal irisgarritasun plana garatzen joan.

- a) Tren geltoki inguruan sortu daitezkeen irisgarritasun arazoak konpondu.
- b) Osasun zentroko sarreran irisgarritasun hobekuntzak sustatu.

E.5.1.2. Elbarrituentzako aparkalekuak ezartzeko aukerak aztertu.

P.5.2. Mugikortasun iraunkorrerako plana egin eta gauzatzeko programa

E.5.2.1. Udaltalde mailako Mugikortasun Plana burutu eta honi lotutako hainbat ekintza martxan jarri: (*UT21 Ernioaldea*)

- Mugikortasun Iraunkorrerako Herri Batzarraren sorrera bultzatu
- Eskualdeko Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Batzordearen sorrera bultzatu
- Mugikortasun Iraunkorraren aldeko hitzarmen bat sinatu
- Udaltaldeko industrialdeetako mugikortasuna aztertu eta landu

P.5.3. Garraiobide iraunkorrakoak bultzatzeko programa: garraio publikoa, bizikleta, oinezkoa

E.5.3.1. Anoetako udalerrian aparkalekuen egoeraren datu zehatzak izan, beharrezkoa balitz neurri egokiak hartzeko.

E.5.3.2. AHT sortu ditzakeen inpaktuak ahalik eta murriztenak izatea bultzatu, Anoetan sortu dezakeen barrera efektua saihestuz.

E.5.3.3. AHT proiektuaren inguruko informazio eta komunikazio zabal, garbi eta ulerterraza eskatu eta bideratu, alderdi ezberdinetan (nekazaritza, paisaia, biodibertsitatea, gizartea...) izango dituen eraginak ezagutaraziz.

E.5.3.4. Anoeta eta Tolosa arteko ibilbidea benetako beharrei egokitu eta erabiltzaile ezberdinen artean sortzen diren eragozpenak konpontzea bultzatu.

E.5.3.5. Oinezkoen ibilbideak hobetu, esaterako, Anoeta eta Irura arteko zubiko espaloia, Villabonara doan bidea eta Elbarren auzoa (argiteria, segurtasuna...).

E.5.3.6. Anoetako Ikastolarako eta kiroldegirako joateko bide seguruak bultzatu, ikastola inguruan goizetan autoekin sortzen diren eragozpenei irtenbidea bilatuz.

E.5.3.7. Intermodalitatea bultzatu Gipuzkoa Foru Aldundiarekin elkarlanean: (*UT21 Ernioaldea / Gipuzkoak Foru Aldundia*)

- Udaltalde mailako autobus zerbitzua osatzeko gestioak egin
- Trena eta autobusaren arteko loturak hobetzeko gestioak egin

E.5.3.8. Eskualdeko bidegorri sarea osatu (*UT21 Ernioaldea / Gipuzkoak Foru Aldundia*)

E.5.3.9. Bide-hezkuntza saioak ikastetxeetan antolatzen jarraitu: (*UT21 Ernioaldea*)

- Prestakuntza
- Beharrezko materiala erosi

E.5.3.7. 16 urtetik aurrerako ikasleei zuzendutako ikasketa zentroetara joateko garraio motaren bat sustatu. (Ibaetako unibertsitatera joateko, adibidez) (*UT21 Ernioaldea*)

E.5.3.8. Autoa konpartitzea sustatu, batik bat lantokietara eta ikastetxetara heltzeko (*UT21 Ernioaldea*)

P.5.4. Motordun ibilgailuen zentzuzko erabilera bultzatzeko programa

E.5.4.1. Herri barruko abiadura mantsotzeko seinaleztapena hobetzeko eta dispositiboak ipintzeko gestioak egin Foru Aldundiarekin

- a) Hernialderako bidean
- b) Alkizarako bidean
- c) Tolosa lurakin batzen duen errepidea

E.5.4.4. Sentikortze programen garapena ondorengo gaietan: (*UT21 Ernioaldea*)

- a) Trafiko arazoetan norberak duen arduraren inguruan kontzientzia hartzea.
- b) Ibilgailu pribatuaren erabilerak aparkaleku faltaren arazoan duen eraginaz ohartaraztea

LE6. HERRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA ETA HERRITARREN SENTIKORTZE ETA PARTEHARTZEA HOBETU

P.6.1. Udalak herritarrekiko duen komunikazioa hobetzeko programa

E.6.1.1. Udala eta herritarren arteko komunikazioa hobetzeko bide berriak aztertu eta martxan jarri (web orria...).

- a) Gazteekiko informazio eta komunikazioa hobetu.
- b) Baserrietara zuzendutako informazioa eta komunikazio kanalak hobetu.

E.6.1.2. Tokiko Agenda 21en inguruko komunikazioa aurrera eraman. *(UT21 Ernioaldea)*

E.6.1.3. Eskualde mailako Tokiko Agenda 21 web gunea bultzatu. *(UT21 Ernioaldea)*

P.6.2. Herrian garatzen diren ekintzetan herritarren partehartzea areagotzeko programa

E.6.2.1. Herritarren bizimoduan eta udal ekintzetan gizarte eragileen eta herritarren parte hartze eta inplikaziorako mekanismo eta bideak finkatu.

- a) Udal erabakietan herritarren partehartze zabalagoa sustatuko duen moduaren inguruan hausnartu.

E.6.2.2. Tokiko Agenda 21en barnean martxan jarritako herritarren parte hartzeari jarraipena eman.

E.6.2.3. Udalerriko elkarteak indartu eta berriak sortzeko erraztasunak jarri.

E.6.2.4. Gizarte sektore ezberdinetara zuzendutako hezkuntza programak diseinatu eta garatu partehartzea sustatzeko. *(UT21 Ernioaldea)*

P.6.3. Iraunkortasun sentikortzea sustatzeko programa

E.6.3.1. Iraunkortasun eta gizabidearekin zerikusia duten gaien inguruko kontzientziazio kanpainak gauzatu, Udaltaldez kanpoko gainontzeko herriekin koordinatuz, batik bat, Tolosarekin. *(UT21 Ernioaldea)*

- a) Ur kontsumo arduratsu bat sustatzeko sentsibilizazio kanpainak bultzatu
- b) Energiaren kontsumo iraunkorra sustatzeko sentsibilizazioa kanpainak sustatu.
- c) Ibaiko landaredi eta ertzetan metatzen diren hondakin ugariaren arazoa saihesteko herritarren sentsibilizazioan ekintzak garatu eta garbitzeko ekintza garatu

LE7. UDAL KUDEAKETA HOBETU IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK TXERTATUZ**P.7.1. Herrian garatzen diren jardueren ingurumen kontrolerako programa**

E.7.1.1. Sailkatutako jardueren eta lanen ingurumen kontrola ziurtatu jarduera eta irekitze lizentzien emate, eguneratze eta jarraipenaren bidez.

E.7.1.2 Udalerriko ekonomia jardueretan ingurumen jardunbide egokiak sustatu eta ingurumen ziurtapenaren inguruko informazioa eskaini.

E.7.1.3. Lurzoru poluituen bilakaeraren eta potentzialki poluitzaileak diren jardueren jarraipena egin.

P.7.2. Udal kudeaketan iraunkortasun irizpideak txertatzeko programa

E.7.2.1. Iraunkortasun prozesuaren jarraipen, kontrol eta planifikaziorako udal antolakuntza finkatu.

E.7.2.2. Ingurumen Kudeaketa Sistemak ezartzen jarraitu udal zerbitzu eta eraikinetan.

E.7.2.3. Udal bulegoei begira, ingurumen jardunbide egokiak diseinatu eta ezarri.

E.7.2.4. Ingurumenean eragin dezaketen jarduera guztien planifikazio eta garapenean ingurumen irizpideak barneratu (txosnak, tabernak,.....).

E.7.2.5. Udal kontratazio prozesuetan iraunkortasun irizpideak barneratu (ingurumen ordenantza).

E.7.2.6. Planeamenduaren garapenean iraunkortasun irizpideak barneratu eta paisaiaren babesa - hirigunean zein ingurune naturalean - kontutan edukitzeko balore gisa hartu proiektu oro planifikatu eta burutzerakoak.

E. 7.2.7. Politiko eta teknikarientzat iraunkortasunarekin lotura daukaten gaietan prestakuntza eskaini (UT21 Ernioaldea)

E.7.2.8. Aurrekontuaren %0,7 hirugarren mundura bideratu ahal izan ezker.

E.7.2.9. Udal erosketan iraunkortasun irizpideak barneratu: produktuak identifikatu eta ezarriko diren iraunkortasun irizpideak definitu (erosketa berdea)

P.7.3. Instituzioen arteko koordinazioa bultzatzeko programa

E.7.3.1. Tokiko Ekintza Planen jarraipena eta Udaletan iraunkortasun irizpideak txertatzeko Udaltaldearen Batzorde iraunkorra finkatu. (UT21 Ernioaldea)

E.7.3.2. Tolosaldea mailako herrien artean proiektuak diseinatu eta martxan jartzeko helburuarekin laguntza eta baliabideak lortu ahal izateko Eusko Jaurlaritzan, Gipuzkoako Foru Aldundia eta entitate publikoekiko (IHOBE, EVE...) informazio/komunikazioa mekanismoak indartu. (UT21 Ernioaldea)



ANOETAKO EKINTZA PLANA



E.7.3.3. Tolosaldea Garatzen erakundeak herri txikienganako eskaintzen duen atentzioa areagotu eta indartu. (UT21 Ernioaldea / Tolosaldea Garatzen)